

Sistematizazioa,

gure praktiken gaineko
begirada berria

Giza transformazioko
esperientziak sistematizatzeko
gidaliburua





ALBOAN

Funikular Plaza, 2
48007 Bilbao
Tel.: 94 415 11 35
Faxa: 94 416 19 38
alboanbi@alboan.org
www.alboan.org



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTOA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Ekonomia Zientzietako Fakultatea
Lehendakari Agirre, 83
48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@bs.ehu.es
www.hegoa.ehu.es



Universidad de
Deusto

Deustuko
Unibertsitatea

Instituto de
Derechos Humanos
Pedro Arrupe

Pedro Arrupe
Giza Eskubideen
Institutua

Deustuko Unibertsitatea
Unibertsitateetako Etorbidea, 24
48007 Bilbao
Tel.: 94 413 91 02
Faxa: 94 413 92 82
derechos.humanos@deusto.es
www.idh.deusto.es

Argitalpen honen gauzatze lana, CD Rom-erako dokumentazioaren aukeraketa, eta baita "Giza Garapena-Compartiendo Experiencias" egitasmoaren ekintzen koordinazio orokorra, Marlen Eizaguirrek (Alboan), Gorka Urrutiak (Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua) eta Carlos Askunzek (Hegoa) burutu dute.

Bilbao, 2004ko maiatzean
Lege Gordailua:
Gaztelera-euskara itzulpena: D. García
Diseinu eta Maketazioa: Marra
Inprimaketa: Lankopi S.A.

Aurkibidea

Sarrera

- Nori zuzentzen zaio gida hau? 7
- Zergatik gida hau? 8
- Zer berri ekar dezake gida honek gaur, hemen? 9

1. Sistematizazioa ikusten

Sistematizazioa zer den

- 1.1. Sistematizazioaren definizioa 13
- 1.2. Sistematizazioaren ezaugarriak 15
- 1.3. Sistematizazioari begirada historiko bat 19
- 1.4. Zergatik sistematizatu 21
- 1.5. Zertarako sistematizatu 22
- 1.6. Norekin sistematizatu 23

2. Begirada ezberdinak

Sistematizazioaren ikuspegiak

- 2.1. Ikuspegi tradizionalak 29
 - 2.1.1. Sistematizazioa eta herri hezkuntza 29
 - 2.1.2. Sistematizazioa eta gizarte lana 30
 - 2.1.3. Sistematizazioa eta Ekintza Partehartzailea Ikerkuntza 34
- 2.2. Ikuspegi garaikideak 38
 - 2.2.1. Sistematizazioa eta ikerkuntza 39
 - 2.2.2. Sistematizazioa eta ebaluazioa 40
 - 2.2.3. Sistematizazioa eta oroitidazkiak eta txostenak 41

3. Ikuspegiari aurre egiten	43
Sistematizazio bat antolatzen	
3.1. Sistematizazioaren bete beharrekoak	45
3.2. Sistematizazioaren mugapena	46
3.3. Partehartzaileen definizioa	46
4. Begiratzen, ikusten eta ezagutzen	47
Sistematizazioa praktikara eramaten	
Sarrera: "sistematizazioaren barraskiloa"	49
4.1. Hasiera puntua	51
4.2. Hasierako galderak	52
4.3. Bizitutako prozesua berreskuratzen	55
4.4. Gogoeta sakona: Zergatik gertatu zen gertatutako hura?	56
4.5. Helmugak	57
4.6. Ezaguera gorpuztu eta aberasten	59
5. Emaitzak argitara emanez	61
Sistematizazioaren emaitzak aurkezten	
Gehiago sakontzeko	65
Hitz gutxitan...	69

Sarrera



Nori zuzentzen zaio gida hau?

Ekintza sozialeko esperientzietan parte hartzen dugun kide guztioi zalantzak eta galderak sortzen zaizkigu maiz praktika horiei buruz, baita gure harremanei buruz zein besteekin egindako lanetaz. Gure praktika horiek egokiak izango omen dira momentu honetan? Zergatik gertatu zen honela talde honekin, eta beste horrekin ezberdin suertatu zen? Zergatik gure ekintza eraldatu zen, espero ez genuen emaitzak sortuz eta bilatzen ez genuen zerbait bilakatuz?

Giza transformazioaren esparruan erreflesionatzeko eta gure praktika horiek hobetu ahal izateko honako tresna metodologiko hau aurkezten dugu –sistematizazioa–. Erreminta hau baliagarria suerta daiteke ez bakarrik gure kolektiborako, baizik eta beste pertsonentzat ere. Jarraipide hauek lagunduko dute taldearen gogoeta lanean, bere buruari itauntzen, eta ikasten ere, guzti hau taldearen barruan bertan zein beste pertsonekin batera. Hurrengo praktikei begira ekiteko moduak adosteko ere lagunduko du.

Hau ez da “errezetarik”, baizik eta talde bakoitzari moldatu eta egokitu behar zaion proposamen bat bere errekurtsuak, eskarmentua, denbora, etab. kontutan hartzen, baina ez bakarrik gure praktikei laguntzen, baizik eta taldekide guztien ikasketa eta ‘**ahalmentzea**’ bultzatzen ere.

Honela, gure proposamen honen helburua zera da, giza transformazioaren inguruko praktikak hobe daitezen laguntzea, ikerketa horietako partehartzaile guztien “**ahalmentzea**” bultzatu eta, ondorioz, bizi garen mundu honen eraldaketa.

Zergatik gida hau?

Azken hamarkadetan zehar bultzatzen ari diren kooperazio prozesuak eta praktiketatik ondorioak atera, gogoeta egin eta ikasteko beharizanaren inguruan bere kezka erakutsi dute gobernuak kanpoko erakunde anitz. Egoneza horrek bultzatu du gidaliburu honen argitalpena.

Gaurkotasunak eta bere larrialdiek, bere etengabekotasunak, gogoetarako eta ikasketa kolektiborako leku gutxi uzten dute. Eta suertatzen diren gogoeta esparru gutxi horiek, askotan praktika konkretuetatik hain urrun agertzen dira. Horregatik, proiektu hau bultzatzen dugun erakundeok alderdi praktikoa eta teorikoa behar bezala uztartzeko tresna egokiaren beharizana somatu dugu. Bi aspektu horiek lotu zitzaketen proposamenen bilatzerakoan gehienbat Latinoamerikan garatu den *esperientzien sistematizazioa* topatzen dugu.

Egun, gure testuinguru honetan, proposamen hau giza erakunde askorentzat erabilgarria suerta daitekeelakoan gaude.

Zer berri ekar dezake gida honek gaur, hemen?

Nagusiki globalizazioak eragindako testuinguru nahasi honetan, gizartearen eraldaketa eta garapenaren aldeko gure apostuak praktiketan aldaketak eta egokitze lana eskatzen du etengabe. Baina aldaketa eta egokipen horiek gogoeta sakon batetatik sortu behar dira, bukatutako lanari egindako berrikusketa kritiko batetatik. Hau da, gure praktikak norabidetzeko eta hobetzeko gakoa aldeaz aurretik lortutako eskarmentua izan behar da.

Gizarte zientzien helburu eta erronka nagusietarikoa izan da betidanik erakundeetako prozesuak ulertzea. Egun erronka hori esistitzen darrai, eta hainbat lagunen bizitza eta lanaren giltzarria da. Hemen aurkezten dugun proposamen metodologiko honek laguntza berri bat eskaintzen saiatzen da. Kolektibo bezala martxan jartzen ditugun giza prozesuak eta praktika konketuak ulertzen lagun diezagukeen tresna dugu hau. Eta ez bakarrik ulertu ahal izateko, baizik eta kritikoki eta kolektiboki aztertu eta ikasketa berriak bultzatu ahal izateko.

Horregatik, gida honek proposamen metodologiko bat eskaintzen digu, zera ahalbidetzeko:

- ◆ Gure praktiken inguruko **berrikusketa kolektiboa eta amankomunezkoa**.
- ◆ Praktika bizi dutenek **esperientzia horren gaineko jabetzea**.
- ◆ **Ikasketa** berria.
- ◆ Orokortu ahal daitezkeen **proposamen alternatiboak** aurkitzeko aztarnak.
- ◆ Praktika konketuak eta gogoeta esparruen arteko uztarketa erraztu dezakeen **ezagutza berria**.

1. Sistematizazioa ikusten

Sistematizazioa zer den



1.1. Sistematizazioaren definizioa

Lan gogorra dugu beti kontzeptu bat definitzea, hain zaila suertatzen baita oinarritzotzat jotzen diren fiabardura guztiak hitz gutxitan mugatzea. Hori dela eta, sistematizazioa zer den ulertzeko azterna batzuk eta honen inguruko definizio ezberdinekin topatzen gara. Definizio horiekin batera, ondorengo gidaliburu honek lagunduko digu gure proposamen metodologiko hau ulertzen.

Zera dugu sistematizatzea...

- ◆ *Besteekin konpartitu nahi dugun esperientzia bat era ordenatuan erregistratzea, eginkizunak eta berauen oinarri teorikoa uztartuz, eta eskarmentuon lortutako ikasketak bereziki azpimarratzen.*

(Instituto Interamericano de Derechos Humanos)

- ◆ *Giza errealitate bateko transformazioko esperientzietan oinarritutako prozesu etengabea eta metagarria ezaguera sortzeko. Transformazioko esperientzietatik datozen ezaguerak, hau da, herriaren heziketa eta sustapenetatik eratorrikoak, herriarekin batera eta errealitatea eraldatzeko nahian aurrera eramandakoa.*

(Taller Permanente de Sistematización)

- ◆ *Esperientzia bat edo batzuren interpretazio kritikoa dugu sistematizazioa, zeinek berauen ordenamendu eta berreraikitzearen bitartez, bizitutako prozesua aurkitu edo azaltzen duen, baita prozesuan eragin duten faktoreak, zein nola eta zergatik erlazioatu diren horrela elkarren artean.*

(Oscar Jara)

- ◆ *Proiektu sozialei tradizioz aplikatu izan zaien ebaluaketari alternatiba dugu sistematizazioa. Eraberean, giza aldaketa eta interbentzioko proiektuak aztertzerakoan indarrean dagoen ikerketa sozialak azalarazten dituen arazoei erantzuna emateko.*

(Sergio Martinic)

- ◆ *Ezaguera teoriko eta praktikoak sortzeko prozesu xedatsua, eraldaketa askatzailako praktiken inguruan eta berauetatik eratorrikoa. Honen asmoa; eraldaketa horrek bere helburuak lortzen laguntzeko, hau da herri sektoreen gaitasunak eta indarren etengabeko garapenari laguntzeko, eta honela, subjektu kolektibo bilakaturik, bere arazoen eta beharren identifikazio eta soluzioen protagonista izan ahal daitezen, egungoak zein historikoak, eta eraldaketa hau oztopatu nahi duten erlazio eta mekanismoak gainditu ahal izateko.*

(Felix Cadena)

- ◆ *Gure ikuspegitik, sistematizazioa esperientzia bat edo batzuren interpretazio kritikoa da, zeinek berauen ordenamendu eta berreraikitzearen bitartez, bizitutako prozesua aurkitu edo azaltzen duen, baita prozesuan eragin duten faktoreak, zein nola eta zergatik erlazionatu diren horrela elkarren artean, eta honela, ezaguera berriak sortzen dituelarik.*

(Proyecto de Sistematización de experiencias de Desarrollo Humano)

Hala ere, esan beharra dago ez dela oraindik guztiz adostu sistematizazioa zer den azaltzeko definiziorik. Eza honek nahasmena sortu dezake kontzeptua ulertzerakoan, baina aldi berean, bidea irekitzen dio gure aportazioari. Definizio eza honek bultzatu du pentsamendu “eskola” edo ikuspegi ezberdinen agerpena. Guztiek kezka eta helburu antzekoak badituzte; **gure praktiketarik ikasi ahal izatea.**

1.2. Sistematizazioaren ezaugarriak

Sistematizazioa definitzerakoan gertatzen den bezalaxe, bere ezaugarri nagusiak marrazterakoan ere irizpide anitz ere badago. Hala ere, sistematizazio lan guztietan ematen diren ezaugarri amankomun batzuk identifikatu ditugu. Berauek aurkeztu baino lehen zera argitu beharra dago; edozein sistematizazioaren aurretik badago praktika bat. Bizitutako esperientzia barik ez da posible sistematizazioa aurrera eramatea.

Behin praktika gertatu delarik, sistematizazioa **prozesu partehartzailea** da, zeinek gertatutakoa **ordenatzen** uzten digu, oroimen historikoa honela berreskuratuz, berau **interpretatu ahal izateko, ezagutza berriak ikasten eta beste lagunekin konpartitzeko**.

a. Prozesua

Prozesu bat aurrera eraman ahal izateko aldeztu aurretik ibilbide bat aurrikusita edukitzearen beharra dakar sistematizazioak. Sistematizazioko prozesu honek ondorioa bera bezain garrantzitsua da. Horretarako beharrezkoa da kontutan hartzea sistematizazioa zera dela:

- ◆ Eraikitzen ari den prozesu bat, non jarraitu beharreko ibilbide bat dagoen.
- ◆ Prozesuaren ondorioa prozesua bera bezain interesgarria da.
- ◆ Ondorioz, taldearen garapena eta aportazioei irekita dagoen prozesua da.
- ◆ Prozesu hori zein sistematizatutako aktibitate aurrera eramatean erabili izan zen logika aurkitzeko laguntzen digu (faktoreak, harremanak, etab.).

b. Partehartzailea

Jarduera partehartzailea proposatzen duen metodoa dugu sistematizazioa definizioz. Honek zera dakar; partehartzaileen arteko konfidantza oinarritutako lan eremua sortzea ezinbestekoa dela, non iritziak amankomunean jarri, konparatu eta eztabaidatzea posiblea den. Partehartzeko laguntzen duen giro hori posiblea da ondorengo hau ematen den ehinean:

- ◆ Esperientzian lan egin dutenak sistematizazioaren subjektuak ere badira
- ◆ Lagunkideen arteko konfidantza oinarritutako lan esparru bat sortzen da.
- ◆ Subjektuen iritziak amankomunean jarri, konparatu eta eztabaidatzeko esparrua sortzen da.
- ◆ Edozein sistematizazio prozesu pertsonen arteko interlokuzio prozesua dela barneratu beharra dago. Bertan kultur eraikuntzak, diskurtsoak eta teoriak elkartrukutzen dira.

c. Ordenatzea

Sistematizazioak organizazio lan bat dakar derrigorrez, esperientziaren ekintzak eta ezagutzaren orden logiko bati jarraituz. Esperientzia horren inguruan interpretazio kritiko bat aurrera eramatea ahalbidetu dezan antolakuntza, hain zuzen. Horretarako ezinbestekoa suertatzen da:

- ◆ Gertatutakoaren erregistro ordenatu bat.
- ◆ Bizitutako prozesuaren orden eta berreraikuntza bat.
- ◆ Esperientziaren zehar era desordenatuan sortu ziren ezagutza eta pertzepzio ezberdinen orden bat.

d. Oroimen historikoa

Sistematizazioa aurrera eramateak esperientziaren historia berreskuratu eta beronen oroimena mantentzen laguntzen du:

- ◆ Oroimen historikoa berreskuratzeko ahalegin batera butzatzen gaitu. Eraberean, eguneroko lan jardueretan oroimen horretara jotzeko laguntzen du ere.
- ◆ Oroimen historikoa berreskuratzen du.
- ◆ Praktikak kritikoki berrikusten ditu.
- ◆ Praktika konkretuak prozesu historikoak eta dinamikoak bezala ulertzen laguntzen digu.

e. Analisia eta interpretazioa

Hona hemen sistematizazio guztien elementu oinarrikoa. Behin oroimen historikoa berreskuratu eta ordenatu den, beronen interpretazioa beharrezkoa suertatzen da esperientzia objetibatu ahal izateko eta honela ikasketak atera ahal izateko. Interpretazio kritikoak honako elementu hauek suposatzen ditu:

- ◆ Pertsona oro ezagutzaren subjektuak badira, eta badaukate pertzepzio eta ezaguera bat, norbere esperientziatik eratorrikoa.
- ◆ Bizitutakoa objetibatzea beharrezkoa da: norbere esperientzia ikerketa eta interpretazio teorikoaren objektua bilakatzea, eta aldi berean eraldatzeko objektua ere.
- ◆ Praktikaren gaineko gogoeta suposatzen du.
- ◆ Testuinguru definitu baten barruan gertatu zela kontutan hartzea suposatzen du: praktika baten interpretazio kritikoa errealitate eta testuinguru konkretu baten barruan kokaturik.
- ◆ Esparru konkretuen bidez analizatzen ditu garapen prozesuak.
- ◆ Egoera edo prozesu horretan parte hartzen duten kideen esperientzia eta interpretazioei arreta ipini beharra zaie
- ◆ Aspektu teoriko eta praktikoen arteko oreka bat mantendu beharra dauka.
- ◆ Oinarriko demokraziarekin eta eraldaketarekin konpromezua hartzen du, lan tekniko eta profesionala aurrera eramaten, eta aldagarri zientifikoak -kuantitatibo zein kualitatiboak- erabiltzen.

f. Ikasketa eta ezaguera berriak

Esperientzien sistematizazioa aurrera eramateak dakarren onura nagusia ikasketa eta ezaguera berriak sortzea da. Lortutako ezaguera hori eskarmentu praktikotik ateratzen da, eta ondorioz ikasketa prozesu horren erabilgarritasuna handiagoa ere bada. Ezaguera berri hauen beste helburu bat zera da, praktikei berauei aplikatzea ere, honela giza transformazioaren gure lan horrekin jarraitu ahal izateko. Aipatu ikasketa horrek zera lortzen lagundu behar digu:

- ◆ Gure esperientziak kontzeptuetan sailkatzen, hau da, errealitatetik ezaguera sortzea
- ◆ “Bagenekiela ez genekien” hura azalaraztea.
- ◆ Ezaguera erabilgarria sortzea.
- ◆ Kasu partikular bakoitzean egiten denaz urrundu, abstrakzioa eginez, eta ezaguera berria sortzea, honela esparru emankor bat aurkitu, non orokortzea posiblea den.
- ◆ Praktikatik ikasi, zein gainontzeko erakundeetatik.

g. Eman eta zabaldu

Ezaguerak lortzeko prozesu gehienetan gertatzen den bezalaxe, sistematizaturiko esperientziaren esparru berean jarduten diren gainontzeko kideekin konpartitu ahal izatea erabilgarria da oso, zeren:

- ◆ Informazioaren organizazioa prestatu da esperientzia hori beste lagunei aditzera eman ahal izateko, honela pertsona hauek probetxua atera ahal diezaioten etorkizunean.
- ◆ Bere helburua ikasketa konpartitu eta kontrastatzea da.
- ◆ Eraberean, erakundearen identitatea zein beronekiko atxikipen sentimendua indartu dezake.
- ◆ Gure eskarmentu hori beste erakundeei aditzera ematera laguntzen digu.

1.3. Sistematizazioari begirada historiko bat

Sistematizazioaren agerpena

Batzuen aburuz, sistematizazioa berrogei ta hamar urteetako hamarkadan sortu zen, Latinoamerikako Gizarte Zientziak eta Giza Zerbitzuaren Akademiaren inguruan. Une hartan talde huraren hitzetan, sistematizatzea zera zen; giza zerbitzuaren ezaguera berreskuratzea, ordenatzea, zehaztea eta argitzea, ikutu zientifiko bat emateko.

Edonola, aurreneko orrialdeetan orokorki deskribatu den sistematizazioa Latinoamerikan sortu zen, hirurogeita hamarreko hamarkadan, herri irakaskuntzaren esparruan lan egiten zuten erakundeen eskutik.

Erakunde hauek erronka interesgarriak eraman dute aurrera irakaskuntzaren esparruan eta, denbora aurrera joan ahala ia desagerturik ditugu. Egoneza bertan sortu zen egindako esperientziak berreskuratu eta bertatik ikasteko interesa sortu zenean, praktiketan parte hartu zuten pertsonak ere kontutan hartuz. Sistematizazio bezala sortu zen esperientzia haien berreskurapen eta analisi kritiko bezala planteatu baizen, inplikaturako pertsonekin batera, eta ezaguera berriak sortzeko.

Sistematizazioa ulertzeko modu eta metodologia honek garapen handia izan zuen Latinoamerikan urte hauetan zehar eta harreman estuak izan zituen (IAP) Ekintza Partehartzailea Ikerkuntzaren metodologiarekin, baita gizarte laneko unibertsitate eskolekin zein CEAL-ekin (Latinoamerikako Helduen Heziketako Kontseilua).

Hirurogeita hamarreko hamarkadan garapen zabala bizi zuen, honek ahalbidetu zuen tresnak, terminologia eta erabiltzeko metodologia zehazten. Gehienbat herri irakaskuntzari lotutako esperientzia eta proposamenen garaia izan zen hura.

Hala ere, hasiera hartatik gaur egun arte egon badira bestelako momentu garrantzitsuak, sistematizazioa bide ezberdinetatik garatu zedila bultzatu dutenak. Ondoren aurkezten dugu ibilbide hori laburtuta.

Sistematizazioaren garapena

Laurogeigarreneko hamarkadan, Latinoamerikako herrialde ezberdinen testuinguru soziopolitiko berriaren eraginarekin proposamen honen garapena eten egiten da, bai giza langileen mailan zein akademi mailan ere.

Hala ere, laurogeita hamarreko hamarkadan, kooperazio proiektuetako teknika berrien agerpenarekin (nekazal diagnosi partehartzailea bezala) herri irakaskuntzaren metodologia eta tresna propioak garatzen hasten dira esparru hauetan. Honela, sistematizazioa urruntzen hasten da herri irakaskuntzaren esparrutik eta hasten da garatzen nekazal garapenen esparruan, eremu komunitarioan, etab.

Hasten da uztartzen sistematizazioa bestelako metodologiekin, diagnosi komunitarioen teknikak bezala, planifikazio partehartzailea, ebaluaketa argigarria, etab. Horrek bultzatu zuen hamarkada horretan, oraindik ere Latinoamerikan, moldaketak eta eremu ezberdinetako sistematizazio esperientziak garatuz joatea. Ondoren laburtuko ditugu korrante hauetako batzuk, baina aurreratu ahal dugu eztabaida beti bi joera hauen artean mugitu dela; akademikotasunari lehentasuna eman eta ezaguera berriaren sortzeari, ala deskribapenari eta praktika konkretuen tipologia berrien definizioari.

Hala nola, helburu, hartzaille, utilitate etab. arabera sistematizazio maila ezberdinak badaudela argi geratzen hasi da, eta nola faktore horiek bere mamiak ere baldintzatzen dituzten.

“Berraurkitutako” sistematizazioa

Luarogeita hamarreko hamarkadaren amaieran hasi zen sistematizazioari buruz entzuten ‘Iparraldean’. Batzutan hitz hori erabili zen datuen bilketa edo oroitidazkietaz hitz egiteko baino ez.

Hala ere, herri irakaskuntzaren arloko kideen laguntzaz zabaltzen hasi zen proposamen hau, burututako esperientzietatik ikasi ahal izateko metodologia eta tresna konkretuak eskaintzen dituelarik.

Proposamen hau heldu zen momentuan kolokan jartzen ari ziren garapenerako lankidetzarako praktikak zein garapenerako heziketakoak ere, baita eraldaketa sozialaren inguruko bestelako ekintzak. Une hartan kalitatea eta hobekuntza prozesuak zabaltzen hasiak ziren ez bakarrik enpresetan, giza erakunde eta gobernu kanpoko erakundeetan ere.

Testuinguru berri honetan, non giza interbentzioko lana hobetzeko erremintak bilatzen ziren eta aldatzeko grina ere somatzen zen, sistematizazioak proposatutako metodologia erakargarriagoa bilakatuko zen. Honela, esperientzien sistematizazioarekiko interesa “berraurkitzen” hasiko litzateke, bai Iparraldean zein Hegoaldean.

Gaur egun, eztabaidaren gakoa zera da; sistematizazioa nola erlazionatu bestelako tresna eta prozesuekin, ikerketa, ebaluaketa, txostenen elaborazioa etab. (Ondorengo orrietan jorratuko direnak, hain zuzen).

Gauzak honela, proposamen hau irekita eta etengabeko berreraikitze prozesuan dagoela ikusten dugu. Interesaturik egon daitezkeen erakunde edo lagunak animatu nahiko genituzke bere esperientzia eta aportazioekin lagundu dezatela, proposamen hau aberasteko. Momentuz, zenbait aspektu eztabaidagai suertatzen dira.

1. **Sakontze teoriko eta epistemologikoa.** Eztabaida honekin argitu nahi dena zera da; ea esperientzi bat edo batzuren sistematizazioarekin ezaguera 'akademikoa' lortu daitekeenentz, hau da, kasu konkretu batzuetatik teoria elaboratu ahal denentz.
2. **Proposamen metodologikoa.** Metodologia partehartzaileen inguruko eztabaida, baita teknika kualitatiboei buruz eta beraien egokitasuna errealtatea behar bezala deskribatzeko. Baita prozesua beraren garrantziari buruz, ondorioa bezain garrantzitsutzat jotzen baita.
3. **Partehartzea eta 'jabetzea'.** Sistematizatu nahi den esperientzian parte hartu duten kide guztien aportazioak nola bildu eztabaidatzen da, baita ekarpen horien garrantzia nola ponderatu errealtate konkretu baten testuinguruan.
4. **Proposamen metodologiko** hau finantzatutako proiektuak neurtu eta konkretatzeko tresna hutsa bilaka dadineko arriskuari buruz. Eztabaida honetan ere analizatzen da ea behin partehartzaileen ahotsak bilduta benetan ezaguera sortzen den edo inplikatuak 'jabetzea' bultzatzen den.

1.4. Zergatik sistematizatu

Gidaliburu honen hasieran aipatu denez, sistematizatzeko arrazoia **geure praktikatik ikasteko grina** da, eta, honetaz gain, honako hau ere bilatzen dugulako:

- ◆ Burututakoa neurtzea.
- ◆ Martxan jarritako proiektuen gaineko oroimena berreskuratzea.
- ◆ Analizatzea eta onartzea ez bakarrik porrotak, aurrerakadak ere, baita bidean topatu ditugun puntu kritikoak ere.
- ◆ Prozesu konkretuak analizatzea testuinguru zabalago baten barruan.
- ◆ Praktikatik ikasi.
- ◆ Ezaguera berri horiek sortzea geure praktikatik bertatik.
- ◆ Geure praktikak hobetzea
- ◆ Gure ekintzak gizartearen transformazio lanaren esparruan aurrera egin ditzala.

1.5. Zertarako sistematizatu

- ◆ Gure praktikak hobetzea.
- ◆ Ikasketa sortzea.
- ◆ Ezaguera berriak sortaraztea.
- ◆ Beste erakunde eta kideei komunikatu eta zabaldu ahal izatea.

Hala ere, jarraian ikusiko dugu nola sistematizazioaren ezaugarri bat ala bestea azpimarratzen den arabera, eskola eta praktika ezberdinen aurrean egongo gara. Hurrengo orrietan azalduko dugu nola proposamen bakoitzak aspektu banari ematen dio lehentasuna, ondorengo elementuen errepresentazio grafikoaren bitartez.



Hedapena



Lortutako ikasketa



Interpretazioa



Analisia



Ordena / Oroimen historikoa



Izaera partehartzailea



Prozesua

1.6. Norekin sistematizatu

Esperientziarekin erlacionatutako talde bakoitzak zein mailaraino parte hartu behar duenari buruzko eztabaida zabala badago, eta ez horrenbeste 'zeinek' parte hartu behar duenaren inguruan, inplikaturako kide guztiek izan behar direlaren inguruko akordio zabala baitago.

Pertsona horiek esperientzia zuzenean bizi zutenak ditugu, hau da:

- ◆ Bultzatzaileak
- ◆ Onuradunak

Pertsona hauek zeregin ezberdinak betetzen dituzte esperientzian, baina guztiek badute zer esanik interpretazio kritikoko bere analisisan. Jarraitutako "eskola" edo "korronte" ezberdinaren arabera, talde bakoitzak eragin ezberdina izango du. Hau ere grafikoki isladatuko dugu:



Bultzatzaileak



Onuradunak

Sistematizazioak bilatutako helburuen arabera, baita taldea beraren egoeraren arabera ere, esperientzia edo erakundetik kanpoko pertsonen partizipazioa elementu aberasgarria zein mugatzailea suerta daiteke. Ez dago iritzi bakar bat aspektu honen gainean, hala ere, garbi dagoenez, ezagutu izan ditugun esperientzia anitz bazeukaten kanpoko kideetako laguntza. Pertsona hauek prozesua bultzatu eta gidatzen zuten, batzutan gaiari lotzen laguntzen edo prozesuan aurrera joan ahal izateko galderak edo orientazioak planteatzen.

2. Begirada ezberdinak

Sistematizazioaren ikuspegiak



Aurreko epigrafean ikusi dugunez, egon dira talde batzuk sistematizazioaren garapenean ikuspegi ezberdinak bulztatu dutenak, beharizan konkretu eta zehatz ezberdinei aurre egiteko nahian.

Historikoki, sistematizazioa Latinoamerikan garapen ezberdinak izan ditu eragin eta loturaren arabera:

- ◆ herri hezkuntza;
- ◆ Ekintza Partehartzailea Ikerkuntza;
- ◆ Gizarte Laneko eskolak.

Sistematizazioarekin bilatutako helburua edo lehentasun ezberdinek sortu dituzte estilo edo korronteen arteko ezberdintasunak:

- ◆ Esperientzien elkartruke eta komunikazioa laguntzea.
- ◆ Norbere lana hobeto ezagutzen laguntzea.
- ◆ Praktikatik hasita, ezagutza teorikoak sortzea.
- ◆ Praktika horren hobetzea.

Eraberean, sistematizatu nahi den objektuaren arabera:

- ◆ Hezitzaileen praktika.
- ◆ Herri taldeen praktika
- ◆ Hezitzaileak eta herritar edo onuradunen arteko harremana.

Hala ere, giza erakundeetan izan duen garapena dela eta, **gaur egun** sistematizazioa proposamen metodologiko bezala honako esparru hauen artean aurkitzen dela somatzen dugu:

- ◆ Proiektuen edota interbentzio esperientzien inguruko oroitidazkien elaborazioa.
- ◆ Esperientzien ebaluaketa
- ◆ Esperientzian oinarritutako ikerketa.

Korrante edo eskola ezberdin hauen arteko aspektu ezberdinak eta amankomunak isladatzen saiatuko gara jarraian.

2.1. Ikuspegi tradizionalak

2.1.1. Sistematizazioa eta herri hezkuntza

Sistematizazioa eta herri hezkuntzaren arteko lotura gehien garatu eta sustatu dutenak 'Alforja' sareko kideak izan dira, Erdialde Amerikako herri hezitzaileen sare bat, hain zuzen.

Hurrengo urrats hauetan oinarritzen da haiek planteatutako eredua:

- ◆ Hasiera puntua.
- ◆ Hasierako galderak.
- ◆ Bizitutako prozesuaren berreskurapena.
- ◆ Gogoeta sakona: zergatik jazo zen gertatutako hura.
- ◆ Helmugak.

Ikuspegi honetatik, asmo nagusia zera da, testuingu zehatz batera lotuz praktiketatik ikastea, ez horrenbeste ezaguerak sortzea.

Partehartzaileei dagokienez, sistematizazio honetan "onuradunak" diren kide horiek dira oinarritzko protagonistak.

Gure gida honetan jarraitu dugun eredua da hain zuzen, hori dela eta, geroago aurkeztuko dugu proposamen praktikoaren barruan.



Interpretazioa



Ordena / Oroimen historikoa



Lortutako ikasketa



Hedapena



Analisia



Izaera partehartzailea




Prozesua



Onuradunak



Bultzatzaileak



2.1.2. Sistematizazioa eta gizarte lana

Gizarte lanarekin elkarlotuta egon da sistematizazioko metodologia hau bere hasieratik. Sistematizazioaren ekarpena nagusia zera zen, esparru ezin hobea izatea praktikatik ezaguerak lortzeko.

Gizarte lanarekin lotutako lagun talde honentzat, sistematizazioa honako hau zen; ordenatzea, zehaztea eta argitzea zerbitzu sozialaren jakite multzoa, beroni izaera zientifikoa emateko.

Zentzu honetan, gure gai hau gehien jorratu dutenak Peruko Etengabeko Sistematizaziorako Lantaldeko kideak ditugu.

Haien ustez berreraikitze eta gogoeta analitikoko *prozesua da sistematizazioa, pertsonalki bizitutako promozio esperientzia baten gainean -edota beronen aspektu zehatzen gainekoa-*, eta honi esker gertatutakoa interpretatzen dugu ulertu ahal izateko. Honek ahalbidetzen du produktu sendo eta ondo oinarrituta lortzea. Ondorio honi esker esperientzia besteei transmititzea posiblea da, besteekin konparatzea, baita ezaguera teorikoarekin. Honela, praktikatik eta praktikaren probetxurako ezaguerak sortu eta pilatzen laguntzen du.

Haien proposamena ezaguera sortzean datza batik bat, eta giza interbentzioko Peruko hainbat erakundetan aplikatzen jardun dute.

Haien proposamenaren faseak -orain berrikusketa prozesuan daudela- honako hauek ditugu:

1. Sistematizazio proiektuaren diseinua

◆ *Zer bilatzen dugun esperientzia horren sistematizazioarekin*

- Zer motatako ezaguerak lortzea espero dugu, zein da bilatutako ondorioa, noren probetxurako izatea bilatzen dugu?
- Sistematizazioa erantzun nahi d(it)uen galdera gakoa(k) sortzen ditu (prozesuaren ardatza edo sarrera).

◆ *Zer sistematizatu nahi den*

- Sistematizatu nahi den esperientzia mugatu egiten dugu hemen. Osotasunean, edo alde bakar batean... (zenbat eta zabalera gehiago, sakonera gutxiago).
- Bilatutako helburuen menpe dago (hasierako galdera).

◆ *Nola burutuko dugun sistematizazioa*

- Proposamen metodologikoaren hautaketa (modu irekian).
- Sistematizazioaren operazionalizazioa (Nortzuk eta nola hartzen dute parte, epeak, errekurtsioak...).

Sistematizazio Proiektua dokumentuaren diseinua (eskema):

- Oinarritzea: zertan zetzan esperientzia hura eta zergatik sistematizatu.
- Sistematizazioaren helburuak: Zer helburu bilatzen den, ondorioetan, prozesuetan, ikasketan, etab.
- Metodologia: hautatutako metodoa aurkeztu eta oinarritu, eginkizunak deskribatzen, erantzunkizunak, etab.
- Errekurtsioak: epeak, materialak eta beharrezkoak diren diru errekurtsioak.
- Kronologia: eginkizunen ordena, momentu gakoak, produktuen aurkezpena, etab.

2. Prozesuaren berreskurapena

- ◆ *Esperientziaren deskribapena:* Non eta noiz burutu zen, zeintzuek hartu zuten parte, zein helburuekin, lortutako emaitzak... Guzti hau atzerantz begirada ordenatu bat emateko.
- ◆ *Prozesuaren garapenaren berreskurapena:* Ahalik eta osoena, gertatutako guztiaren berri emanez (ez bakarrik aurreikusitakoa), prozesuaren partehartzaile guztien ikuspuntuak bilduz (talde osoa zein herritar onuradunak ere)

Bestelakorik:

- Lan hau burutzeko badaude informazio iturri zehatz batzuk (proiektua, egitarauak, txostenak, ebaluaketak, erregistro ezberdinak, oroitidazki bat...).
- Berreraikitze horretan laguntzen duten zenbait tresna eta gida erabiltzen dira.
- Esperientziaren berreraikitzearekin batera testuinguratzeko lana burutzen du ere.

3. Prozesuaren analisia

- ◆ Prozesua unitate oinarrizkoetan zatitu, bere barneko logika eta harreman ezberdinak ulertu ahal izateko.
- ◆ Kontzeptualizazioarekin hasi. Erabiltzen ari diren egoerak, praktikaren gaineko gogoeta eta irakurketa teorikoekin kontrastatzea.
- ◆ Oinarrizko tresna galderen formulazioa da. Galdera hauen sorrera sistematizazioaren ardatzak eta helburuak dira, era ordenatuan: sistematizazioaren galderak operazionalizazioa.
- ◆ Galdera horiei erantzuteko beharrezkoa den informazio guztia birrantolaketa bukatzen da analisia.

4. Prozesuaren interpretazioa

- ◆ Bizitutako prozesua azaltzea dugu helburua, esperientzian zehar lortutako ezaguera berriak argitara ateraz. Eskuetan dugun informazio guztia erlazionatzen eta kontutan hartzen, beti analisiaren momentuan eraturako galderei erantzuen. Behetik gorako prozesua da, sistematizazioaren helburutzat jotzen zen galderaraino igo arte.
- ◆ Prozesuaren logika sakona ulertzea lortzen dugunean bukatzen da sistematizazioa. Honela lortzen dugu ikasketa baliotsu bat gertatutakoari buruz, eta honek lagunduko digu ekintza berriak norabidetzen. Honela, sistematizazioaren ondorioak *ikasketak* bezala azaldu behar dira, eta, posiblea den ehinean, ekintza berriei begira *aholkuak* bezala. Bestelako helmuga bat izan daiteke galdera berrien formulazioa, prozesu berriak bultzatzen lagun ditzala.

5. Aurkezpena

- ◆ Sistematizazioarekin lortutako emaitzak eta prozesua aurkeztea dugu helburua hemen. Aurkezpen hori egokia eta sintetikoa izan beharko du, horretarako komunikazio euskarri ezberdinak erabil ditzakegu.

SISTEMATIZAZIO PROPOSAMENAK




	CELATS (1985)	CEAAL-PERU Lantalde Etengabekoa (1988)	Garapenerako Eskola (1991)	Oscar Jara, Alforja (1994)
Hartzailea	Langile sozialak.	Bultzatzaileak eta herri hezitzaileak.	Bultzatzaileak.	Herri hezitzaileak zein bultzatzaileak.
Sistematizazio kontzeptua	Esperientza batetik ezaguera sortzeko teoria zein praktika hartzen duen metodoa. Ikerketa mota bat, non ikertutako objektua bizitutako eta parte hartu den esperientzia bat den.	Giza errealitate bateko transformazioko esperientzietan oinarritutako prozesu etengabea eta metagarria ezaguera sortzeko. Praktikaren osteko lehen teorizazio maila.	Bizitutako esperientzia baten gaineko gogoeta analitikoa eta berreraikuntza prozesua, akatsak eta azertuak ezberdintzen. Sistematizazioen konparaketa eta pilaketak lagunduko du interbentzioko ildo metodologikoak garatzen.	Esperientzia bat edo batzuren gainean egiten den interpretazio kritikoa, zeinek ordenaketa eta berreraikitzearen bitartez bizitutako prozesuaren logika azalarazten duen, baita prozesuongan eragina izan duten faktoreak, nola eragin duten elkarrekin eta zergatik gertatu den modu horretaz.
Bilatutako helburuak	Langile sozialaren praktika hobetzea. Antzeko esperientziak eskaintzea. Ezaguera zientifikoaren ekoizpena aberastu egunerokoa eta esperientzia mailatik.	Interbentzioak eskaintzen duena erabiltzen interbentzioa bera hobetu. Dagoen ezaguera zientifikoa aberastu, konparatu eta aldatu, errealitatea transformatzeko balio dezakeen tresna bilakatu.	Bizitutako prozesuaren inguruan amankomuneko ikuspegi bat adostea (taldearen barnean). Esperientziak transmititu eta konpartitu promozioaren inguruko teoria bat eraikitzen laguntzeko.	Esperientziaren inguruko ezagutza sakonagoa lortzea praktikak hobetzeko helburuarekin. Esperientziatik lortutako ikasketak antzeko praktikekin konpartitu ahal izatea. Praktika sozial konkretuetatik ateratako ezaguerak eskaintzea erreflesio teorikoari eta teoriaren eraketari.
Nola sistematizatu	<ol style="list-style-type: none"> Esperientziaren berreskurapena eta ordenazioa. Sistematizazioaren objektua eta helburuen mugapena. Esperientziaren berreskurapena objektuaren ikuspegitik. Analisia: Galdeketaren operazionalizazioa eta informazioaren berreskurapena. Sintesia: Galderei erantzunak Aurkezpena. 	<p>Sistematizazioaren bi mailak:</p> <p>Lehen maila: Prozesua bere osotasunetik interpretatu.</p> <ol style="list-style-type: none"> Proiektuaren eraketa. Prozesuaren berreskurapena. Prozesuaren maiztasunaren deskribapena - Analisia Prozesuaren interpretazioa Aurkezpena. <p>Bigarren maila: prozesuaren esparru batzuri buruzko ezaguera sakontzea.</p> <ol style="list-style-type: none"> Sistematizazioaren objektua eta helburuen finkapena. Proiektuaren eraketa. Esperientziaren berreskurapena objektuaren ikuspegitik. Analisia: Galdeketaren operazionalizazioa eta informazioaren berreskurapena. Sintesia: Galderei erantzunak Aurkezpena. 	<ol style="list-style-type: none"> Sistematizatu beharreko esperientziaren mugapena (denboran zein espazioan) baita objektua eta helburuena. Sistematizatu nahi den esperientziaren deskribapena. Esperientziaren faseen erregistro ordenatua (taula kronologikoa) Prozesuaren erregulartasuna eta etapen tipifikazioa. Analisia eta ondorioak. Erredakzioa. 	<ol style="list-style-type: none"> Hasiera puntua: <ol style="list-style-type: none"> Esperientzian bertan parte hartu izana. Esperientziaren inguruko erregistroak gordeta edukitzea. Hasierako galderak: <ol style="list-style-type: none"> Zertarako nahi dugu sistematizatu? (Helburua mugatzea) Zer esperientziak nahi ditugu sistematizatu? (Objektua finkatzea) Esperientzia horretan zeintzu dira aspektu gakoak sistematizatzerakoan? (Sistematizazio-ardatz bat zehaztea) Bizitutako prozesua berreskuratu <ol style="list-style-type: none"> Gertatutakoa berreraiki. Informazioa saikatu eta ordenean jarri. Barneko gogoeta: Zergatik jazo zen gertatutakoa? <ol style="list-style-type: none"> Analizatu, laburtu eta interpretatu kritikoki prozesu osoa. Helmugak: <ol style="list-style-type: none"> Ondorioak eratztea. Ikasitakoa komunikatzea.

Iturria: FRANCKE, M. MORGAN, M.L.: *La sistematización: apuesta por la generación de conocimientos a partir de las experiencias de promoción*. Material didaktikoak 1. zenbakia, Escuela para el Desarrollo, Lima, 1995.

2.1.3. Sistematizazioa eta Ekintza Partehartzailea Ikerkuntza

Unibertsitate esparruan egun ikertzen ari den proposamenetarikoa bat Ekintza Partehartzailea Ikerkuntza dugu. Colombiako Valle de Cali-koa da Herri Heziketaren inguruko ikerketa talde hau, zientzia esparru anitz jorrazten ditu, eta haien proposamen metodologikoa esperientzien interpretazioa azpimarratzen du batik bat.

Haien ikuspegitik, metodologiaren giltzarria esperientziatik kontakizunak eraikitzean datza, horrekin batera interpretazio irakurketak burutzea, azkenean helburu batekin; "adostutako makro kondaketa" bat eratzea. Haien fokapenean ikerketaren izaera azpimarratzen dute, honako ezaugarri hauek, hain zuzen:



SISTEMATIZAZIO PROZESUAREN FASEAK
Herri Hezkuntzako Ikerketa Taldearen eredia (Universidad del Valle, Cali)

- Ez da urrats kate huts bat.
- Elkarlotuta ulertu behar dira.
- Urrats guztiak batzen dituen barneko mamia makro-kontakizuna da.

- 1. Zabaltasunean** > ikertzeko gai eta mamiak.
- 2. Maiztasunean** > analizatzeko kategoriak: gaiei zentzua ematen dien eremu semantikoa.
- 3. Konparatiboa** > sakontasunezko irakurketak elkarlotu eta erlazionatzen dira: giza aktoreen dinamikak azalarazten dira.



Iturria: Bertan landua Herri Hezkuntzako Ikerketa Taldearen dokumentazioan oinarrituta.

CIDEx garatu duen proposamena -Txilen gehienbat- ere antzeko irizpideetan oinarritzen da. Erakunde honek hiru urrats edo une ezberdin proposatzen ditu sistematizazio prozesu bat aurrera eramaterakoan

1. Edozein praktika batean indarrean dauden eta eragiten duten testuinguruko aspektu guztien analisia.

Honekin zera bilatzen da; lan esparru bat sortzea non esperientzia batetatik datozen prozesuak eta elkar-eragiten duten faktore guztiak ulertzea errazten den.

2. Martxan jartze konkretu hori oinarritzen duen arazoak azalarazten ditu.

Heziketa ekintzak bultzatzen dituzten “erronkak” eta “egonezak” kontutan hartzen dituzten hipotesiak erabiltzen, praktika sozialen logika berreraikitzea bilatzen da honekin. Eragina duten irizpideak eta interpretazioak aztertzen dira bizitutako esperientzia hori esparru orokorrago batean testuinguratzeko.

3. Denbora eta leku zehatz batzuk berreraikitzeo begirada zein ekimena atzera bueltatzen eta birsortzen da.

Hau da, ideia edo proposamen baten sorrera momentutik praktikara eramateraino ematen diren eraginak eta mediazioak aztertzea nahi da (“ideala” den proiektu hartatik, gero “garapen” eta “ondorio” batzuetara heldu arte ematen den zehatze prozesu hori).

Bi proposamen horietan lehentasuna ematen zaio proiektuko partehartzaileen interpretazioari.


Esan beharra dago ere nola proposamen hauen ezaugarri nagusia “sistematizazioen inguruko sistematizazioak” burutzea izan dela, honek ahalbidetu die esperientzia ezberdinak konparatzea, baita elementu berdin batzuk ere, eta honela orokorgarriak izan daitezke ikasketa berriak atera ahal izan dute.

2.2. Ikuspegi garaikideak

Sistematizazioa gaur egun murgiltzen den esparruan teoria eta praktika uztartzea ahalbidetzen du. Horregatik errealitatea ezagutzen ere laguntzen gaituzten beste proposamenen artean kokatzen da, honako hauek bezala



Jarraian grafikoki ikusi ahal dugunez, ikerketa eta evaluaketarekin zenbait aspektu amankomunean baditu, baina aldi berean bere esparru propioa ere badauka sistematizazioak.



2.2.1. Sistematizazioa eta ikerkuntza

Ezaguera prozesuak dira biak, sistematizazioa eta ikerkuntza. Sistematizazioa, zentzu hertzean ikerkuntza ez bada ere, beronen modalitate bezala jo dezakegu; praktiketatik kontzeptuak eratu saiatzen baita.

Ikerketako objektua errealtatearen aspektu bat da, ezagutu nahi dugun atal bat, eta ezagutzeko grinaren arrazoia errealtate bera eraldatu ahal izatea dugu. Sistematizazioan prozesu bat jorratzen da, edota beronen dimentsioren bat, burututako praktika batetatik hasita.

Ilido honetatik dihoaz Kolonbiako talde batzuek -Universidad Pedagógica Nacional, edo Dimension Educativa bezala- luzatzen duten proposamena.

Talde hauen aburuz, sistematizazioa ikerketa proposamena da, ezaguera kolektiboko modalitate bezala ulertuta, eta interbentzioko praktikak zein ekintza sozialen gainean. Hasiera puntua barne logikak eta zentzu sakonak dira. Berauek indartzea du helburu, baita kokatuta dagoen jakintza eremuaren kontzeptualizazioa aberasten laguntzea.

Sistematizazio proposamen honen ezaugarri nagusiak honako hauek ditugu:

1. Ezaguerak sortzea bilatzen ditu

Maila epistemologikoan, jarrera kontziente bat ezaguera soziala nondik, zertarako eta nola sortzen den inguruan.

2. Ezaguerak sortzeko prozesu hori kolektiboa da

Giza subjektuak dira erabaki garrantzitsuak hartzen dituztenok; zer, zergatik, zertarako, eta nola egin, besteak beste.

3. Sistematizatu nahi dituen giza ekintzen inguruko praktiken zailtasunak eta konplexutasunak onartu egiten ditu

Testuinguruek baldintzatuta dago, harremanak, norabide aldaketak, sortutako efektuak –aurrikusitakoak ala ez–, etab.

4. Praktika bere osotasunean berreraikitzea du helburu

Esperientziaren ikuspegiak eta jakite ezberdinen elkarrizketatik kondaketa deskriptiboa ekoizten bilatzen da.

5. Esperientzia oinarritzen duten logikak eta zentzuen interpretazio kritikoa bilatzen du ere

Esperientzia berreraikitzeaz gain, bere barneko logika propioa jorratu nahi du, baita berau osatzen duten zentzuak ere.

6. Interbentzio sozialaren praktika bera bultzatzea du helburutzat ere

Helburu pragmatiko batean oinarritzen da; praktika bera hobetzea.

7. Praktika sozialen kontzeptualizazioa orokorrean aberasten du

Praktika sozialak osatzen dituzten zentzuak ezagutzea du helburu, puntu horretatik interpretazio eskemak eratzeko fenomeno soziala ulertzeko: praktiken eremu baten gaineko sistematizazio batzuk erreflesio teoriko askoz zabalagoak suerta ditzakete.

Ikuspegi honetatik, sistematizazioaren prozesuaren barnean ezberdindu daitezkeen faseak honako hauek ditugu:

1. Ikerketa garatzeko baldintzak sortzea.
2. Esperientziaren ibilbide historikoaren berreraiketa
3. Esperientziaren analisisa eta interpretazioa
4. Behin-betiko sintesia eta emaitzen isladatzea

2.2.2. Sistematizazioa eta ebaluaketa

Ebaluaketaren ezaugarri nagusia proiektuan bertan fokatzea da, konkretuki bere helburu eta ondorioetan. Sistematizazioa, ordez, proiektua testuinguratzen den prozesuaren bestelako dimentsio batzuetan sakondu nahi du, eta arreta gehiago ipintzen dio praktika profesionala eta subjektu partehartzaileen arteko artikulazioan.

Hala ere, gaur egun ebaluaketaren esparrua zabalduz joan da, bai aztertutakoa, zein analisi momentuak ere. Baina hala eta guztiz ere, bien arteko ezberdintasun galantak existitzen darraite, ondorengo taula honetan garbi ikusi daitekeenez:

	Ebaluaketa	Sistemazioa
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesu baten emaitzak neurtzea • Emaitzak helburuekin, helmugekin eta aurreikusitako ondorioekin alderatzea. • Etorkizuneko jarduerak egiteko gomendioak egitea. • Sinpleagoak diren prozesuetarako ardaztuta. 	<ul style="list-style-type: none"> • Esperientziaren bidez jakintza lortzea. • Beste esperientziekin elkarrizketak izateko ikasteak jasotzea. • Prozesuak konpartitzea, ikastea eta hobetzea. • Konplexuagoak diren prozesuetarako ardaztuta.
Enfasia	<ul style="list-style-type: none"> • Emaitzak helburuekin, helmugekin eta aurreikusitako ondorioekin alderatzeari lehentasuna ematen dio. • Logika zatizkoa da. • Objektibotasunerako joera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako esperientziari buruzko hausnarketa egin nahi du gidatzeko haria edo hausnarketarako ardatzaren bidez. • Prozesuan eragina duten zergatiak eta ondorioak bilatzea. • Sakonki hausnartzea. • Esperientziak zabaltzea. • Prozesuaren logika ulertzea. • Logika zirkularra, sistematikoa, konplexua da. • Dimentsio subjektiboa kontuan hartzen du.
Nork egin	<ul style="list-style-type: none"> • Ez da beharrezkoa aktoreek parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoa aktoreek parte hartzea.
Itxarondako emaitzak	<ul style="list-style-type: none"> • Helburuen noraino heldu diren neurtzea. • Tekniken onartzea. • Efektu kognositiboak zehaztea. • Lanaren jarraipena eta balioztatzea definitzea. • Komunikazioa prozesuaren aktore zuzenei bereziki zuzenduta dago. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasteak, ondorioak, komunikazio-emaitzak, bideoak, dokumentuak, istoriotxoak, e.a. • Komunikazioak aktore zuzenak gainditzen ditu.

Iturria: Polygone (Herri Hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntzaren Nazioarteko Sarea): *Laberintoaren irteera, hezkuntza-mosaikoa lagun*, Gasteiz, 2003.


2.2.3. Sistematizazioa eta txostenak edo oroitidazkiak

Sistematizazioaren emaitzen artean dokumentu narratibo baten aurkezpena dugu. Lehenago esan bezala, sistematizazioan hain garrantzitsua da prozesua ondorioa bera bezala. Arrazoi honengatik, sistematizazioa ezin daiteke izan txosten edo oroitidazki huts bat, non esperientzia laburbiltzen eta deskribatzen den. Prozesu osoa inportantea da, txosten horretan ageri daitekeen ondorioa bezain garrantzitsua.

Honetaz gain, esperientzien inguruko txostenak eta oroitidazkiak ekintzak kronologikoki deskribapen baino ez dute bilatzen. Sistematizazioaren kasuan, ordea, txosten edo dokumentu hau, era sintetikoz deskribatu beharko luke gertatutakoa, baina aldi berean “zergatik gertatu zen gertatutakoa”, baita ikasitako eskarmentuak isladatzea, zein sistematizaziotik atera daitezkeen aholkuak ere.

3. Ikuspegiari aurre egiten

Sistematizazio bat antolatzen



3.1. Sistematizazioaren baldintzak

Erabilgarria suerta dadin, edozein metodologia aplikatu behar da zenbait baldintza, testuinguru eta momentu egokitan. Gainera, prozesu partehartzaile bat martxan jarri ahal izateko -sistematizazioa bezala- alde zuzenetik zenbait adosten hartzea komeni da, eskarmentu zapuzgarria gerta ez dadin.

Illo honetatik, jarraian aurkeztuko ditugu kontutan hartu behar diren elementu gako batzuk metodologia hau hautatu eta erabiltzerakoan:

◆ **Sistematizazioaren gainean gutxienezko adospena**

Sistematizazioaren objektuan inplikaturako pertsonak ados egon behar dira bizitutako esperientzia sistematizatzearekin. Bereziki garrantzitsua da parte hartzen duten erakundeen aldetik konpromezua ere egon dadin.

◆ **Zer sistematizatu nahi den baita emaitzak noren probetxurako izango diren inguruko definizioa**

Metodologiaren unetariko bat honako hau da; zer sistematizatu den definitzea. Hala ere, inportantea da ere ideia orokor, erabat argi eta adostuta edukitzea sistematizazioaren helburuari buruz (dena ezin baitaiteke sistematizatu, eta honek itxaropen faltsuak sortu litzake). Gainera, inportantea da ere kontutan hartzea sistematizazioaren emaitzak noren probetxurako izango diren, prozesuan parte hartzen duten pertsonak asko baitira.

◆ **Errekurtso ekonomikoak**

Behin sistematizazioa egiteko aktibitateen denbora taula eratuta, prozesuaren gastu ekonomikoak aurreikusi beharra dago, baita beharrezkoak diren errekurtsoak eskura edukitzea.

◆ **Heziketa prozesua**

Ikasketaren ezaugarriak baditu prozesu honek, horregatik sistematizazioa heziketa ibilbide bezala planteatu behar da ere.

◆ **Beharrezko denbora**

Sistematizazio prozesu egoki bat burutu ahal izateko gutxienezko epe bat aurreikusi beharra dago beronen fase ezberdinak aurrera atera ahal izateko.

◆ **Baldintza materialak**

Sistematizazioa behar den bezala garatu ahal izateko gutxienezko baldintzei buruz ari gara hemen (gelak, materialak, tresnak, etab.).

3.2. Sistematizazioaren mugapena

Analisi bakar batean ezinezkoa suertatzen da errealitate osoa, bere konplexutasunean, sartzea. Horregatik, sistematizazioa planteatzerakoan, ezinbestekoa da mugatzea zein den analizatu nahi dugun esperientziaren atala edo aspektua.

Geroago, eta aukeraketa horren arabera, definitu beharko da ere zeintzuk diren prozesuan parte hartu ahal izango duten pertsonak, baita denborak, epeak eta eskura ditugun errekurtsoak sistematizazioa aurrera atera ahal izateko.

Honetarako ere kontutan hartu beharko dugu gure mugak proiektu eta proposamenei begira, eta ez saiatu sistematizazio proiektu handinahirik planteatzen. Ildo honetatik, funtzezkoa da ere sistematizazioa izango duen zabalera definitzea, gure gaitasunaren humiltasunetik, eta errealismoarekin, gero itxaropen pertsonalak ez trun-katzeko, gureak zein besteenak ere.

3.3. Partehartzaileen definizioa

Sistematizazioan parte hartuko duten kideek jakin behar dute zer eskatuko zaien eta nola hartu dezaketen parte. Guzti hau sistematizazioaren objektuaren menpe dago, baita inplikaturako lagun bakoitzaren partehartzeak izango duen lehentasuna ere. Edonola, normalean haietako guzti guztiek ezin dutenez parte hartu, komenigarria da denborak eta epeak finkatzea, funtzioak, inplikazioak eta erantzunkizun ezberdinak.

Eraberean, beharrezkoa da ere alde zuzenetik erabakitzea kanpoko talde baten laguntza beharrezkotzat jotzen den ala ez sistematizazioko prozesurako, eta beronen funtzioak zeintzuk izango diren.

Azkenik ere, beharrezkoa da komunikatzea uneoro prozesuaren aurrerapenak, baita beronen emaitzak, bertan parte hartu duten lagun guztiei.

4. Begiratzten, ikusten eta ezagutzen

**Sistematizazioa
praktikara eramaten**



Sarrera: “sistematizazioaren barraskiloa”

Aurrean esan dugunez, metodologi proposamen ezberdinak badaude esperientzien sistematizazioaren inguruan dauden fokapen batzuen arabera, eta proposamen horiek deskribatzerakoan aurreratu dugu ere prozesuan garatzen diren urrats eta fase ezberdinak.

Mexikoko FULCO elkarteak honako hamar momentu hauek identifikatzen ditu sistematizazio prozesuan:

1. Sistematizazioaren garrantzia, erabilgarritasuna eta egokitasuna.
2. Esperientziaren berreskuratze eta berreraikitzen (lehen hurbilketa).
3. Sistematizazioaren objektua.
4. Esperientziaren erregistroa eta antolaketa sistematizazioaren objektuaren arabera.
5. Sistematizatutako objektuaren estruktura.
6. Informazioaren erregistroa eta berreskurapena.
7. Esperientzia berreraiki, erregistratu eta antolatzeko tresneria eta teknikak.
8. Komunikazio idatziaren inguruko gaitasunak.
9. Analisia eta interpretazioa.
10. Sozializazioa.

Aurreratu dugunez ere, sistematizazioa praktikan ipintzeko gure proposamen hau Alforja sareko metodologiaren bertsioa da. Jarraian aurkeztuko dugu proposamen honen urrats ezberdinak. Maila bakoitzean bere deskribapena aurkezten da, baita:



oinarrizko elementuak,



aholkuak, eta



gehienetan sortzen diren zalantzak eta iruzkinak.

Hasi baino lehen...

Marraztu barraskilo bat eta adierazi ondorengo puntu hauek maskorraren zehar:



- 1** • Esperientzian parte hartu izana
• Esperientzien erregistroak edukitzea
- 2** • Zertarako nahi dugu sistematizatu? (Helburua)
• Zein esperientzi nahi dugu sistematizatu? (Objektua)
• Esperientziaren zein aspektu gakoak interesatzen zaizkigu? (Ardatza)
- 3** • Gertatutakoa berreraiki
• Informazioa ordenatu eta sailkatu
- 4** • Prozesua analizatu, laburbildu eta kritikoki interpretatzea
- 5** • Ondorioak formulatzea
• Ikasitakoa komunikatzea
- 6** • Sistematizazioen sistematizazioa
• Ikasketa berriak

4.1. Hasiera puntua

Edozein sistematizazioaren hasiera puntua praktika da. Praktikak sistematizazioaren lehenengo eta bigarrenko momentua suposatzen du. Guzti honengatik esan daiteke erabat ezinbestekoa dela edozein sistematizaziotan parte hartu behar dutela esperientzia bizi zuten pertsona guztiek. Beharrezkotzat jo daiteke ere bestelako kide batzuen partehartzea, baina ezinbestekoak direnak esperientzia zuzenean bizi zutenak ditugu.



- Oinarrizko elementua: esperientzia parte hartu izana.



- Aholkuak: sistematizazio prozesuarentzat erabilgarriak suerta daitezkeen informazioak etengabe erregistratzea.
- Erregistro horiek bileren aktak, egunkariak, edota lan koadernoak izan daitezke, dokumentuen zirriborroak, egitarauak, mintegien oroitidazkiak, argazkiak, grabaketak, bideoak, grafikoak, mapak edota marrazkiak...
- Guzti honekin erregistro taulak burutu daitezke, sistematizazioaren objektua eta metodoaren arabera. Aukeratzeko posibilitate mugaezinak dute eskura taldekideek. Edonola, komenigarria suertatzen da ere erregistro hori ahalik eta erabilgarrien eta sinpleena izatea.



- Erregistratze lana burutzen da normalean, baina oso gutxitan isladatzen dute beharrezkoa den informazio guztia". Jadanik dauden erregistroen erabilera optimizatu beharko dugu.
- Erregistroetan dagoen informazioa betetzeko partehartzaileen esperientzia erabil daiteke ere, efektu hirukoitza lortzen (errealitatea, erregistroak eta oroimena).
- Ahozko iturrien kasuan haien abantailak zein gabeziak ezin ditugu ahaztu.

4.2. Hasierako galderak

Lehen deskribatu dugun urratsa “zero unea” bezala ikusi dezakegu: benetan esperientzia jazotzen den momentua. Jarraian sistematizazioaren benetazko lehenengo momentura pasatzen gara. Hemen helburua definitzea da; objektua, zergatia eta zertarako sistematizatzen dugun. Oso gutxitan egiten da hau esperientziaren amaieraino itxaron gabe, baina holan egingo balitz, eta alde zuzenetik jakingo bagenu, erregistroak burutzerakoan eta informazioa jasotzerakoan erraztasun handiagoz jokatu genezake. Hasierako galderak hiru dira, gutxienez honako hauek:

Zertarako nahi dugu sistematizatu

“Zertarako” galdera honek laguntzen digu sistematizazioaren **Helburua** finkatzen. Helburu hau mugatzerakoan errealismoz jokatu beharra dugu, eta era argia eta zehatz batez definitu. Helburu hau taldearen arabera izango da, beronen kezka, testuinguru, errekurtsoak, etab.

Lehen azaldu dugunez, zertarako nahi dugun sistematizatu galdera honi erantzuteko aukera anitz badago. Itan honi eman dakioken erantzuna sistematizazioaren metodoa ere baldintzatuko du. Ez da gauza bera sistematizatea talde baten esperientzia erregistratzeko edo esperientzian porrota edo arrakasta analizatzeko, etab. Lehenetsuna zeri ematen diogun arabera, metodologiaren definizioa, partehartzaileak, eta prozesuaren bestelako hainbat aspektu ere ezberdinak suertatuko dira.



- Zertarako egin nahi dugu ariketa hau.
- Sistematizazioaren erabilgarritasuna argi edukitzea (eta ez ulertu prozesu hau obligazio edota zama huts bezala).



- Erakundearen misioa eta estrategia kontutan hartzea.
- Partehartzaileen interesak eta posibilitateak kontutan hartzea.



- Ezinbestekoa da erakundearen aldetik errekurtso eta giza baliabideak jasotzea.
- Esperientzari hurbilketa egiterakoan analisi kritiko egiteko gaitasuna izatea, batez ere erakundearen aldetik.

Zein da sistematizatu nahi dugun esperientzia

Sistematizatu nahi dugun esperientzia mugatu behar dugu hemen, denboran zein espazioan. Zergatik mugapen hau; esperientzia beraren arabera, bere helburua, testuinguru etab. menpe egon daiteke.

Komeni da, eraberean, lehenbailehen analizatutako esperientziaren hasiera eta amaierako datak finkatzea. Zehazpen honek sistematizazioaren **objektua** du izena.



- Sistematizatu beharreko esperientzia hautatzea.
- Esperientziaren denbora mugatzea, baita subjektuak eta espazioa ere.



- Ez da beharrezkoa esperientzia osoa hartzea.

Esperientzia horren barruan zeintzuk dira aspektu gakoak sistematizazioari begira

Sistematizazioaren **ardatza** finkatzeaz ari gara hemen, hau da, gure fokapena edo “betaurrekoak” esperientzia konkretu horri begiratzeko. Ikuspegi zehatz batetatik begiratzean datza, gure arretaren fokapena gehiegi ez zabaltzeko, hau da esperientzia oso osoa, bere konplexutasunean hartzen ez saiatzea.

Ardatza finkatzeko hainbat posibilitate ditugu, gainera, esperientzia bera era ezberdinetaz sistematizatu daiteke interesatzen duenaren arabera hartutako ardatza dela eta.



- Jakitea zeintzuk diren gehien interesatzen zaizkigun aspektu, faktore, eta eremuak (honek laguntzen baitu informazio mota hautatzerakoan, beharrezkoak ditugun iturriak, etab).
- Fokapen nagusia zehaztea, eta gehiegi ez zabaltzea.



- Esperientzia osoa zeharkatzen duen ildo bezala planteatu.



- Helburuarekin bat etorri beharra du.
- Komenigarria da ere uneoro formulazioak azalaraztea, zeri buruz ari garen ondo ulertzea.

Sistematizazioaren fase honetan burutu behar ditugun zenbait galdera:

- Benetan ezagutzen al dut sakonki erakundea eta proiektua, bere misioa, ikuspena, kideak, helmugak, helburuak, metodologia, emaitzak, oztopoak, laguntzaileak eta faseak?
- Ba al dut eskura informazioa, hasierako dokumentuak, txostenak, aktak, egitarauak, ebaluaketak, etab.?
- Informazio guzti hori iturri zuzenek ala bigarren mailakoek luzatu diezadakete?
- Zergatik esperientziaren zati hau eta ez bestelakorik? Zein da erabilgarritasuna? Noren probetxurako izango da?
- Zeintzuk dira praktikari ekar diezazkiokeen onurak?
- Zein da beharrezkoa dugun informazioa?
- Zein espero dugu emaitza finala izatea?
- Zeintzuk dira gure sistematizazioaren objektuaren zati oinarriak?
- Zeintzuk dira gure sistematizazioaren objektuaren testuinguruaren zati oinarriak?
- Zein da gure esperientziaren denbora sailkapena?
- Sistematizazioaren objektua berreraikitzeke zein da ezinbestekotzat jo daitekeen informazioa?

4.3. Bizitutako prozesua berreskuratzen

Hona hemen sistematizazioaren urrats oinarritzkoetarikoa, kontakizuna berreraikitzearena, informazioa ordenatu eta sailkatu. Lehen aipatu bezala, pentsamendu eskola, korrante eta ikuspegi ezberdinek garrantzi eta arretarik handiena ematen diote momentu honi. Edonola ere, irizpide guztien arabera berreskurapen momentu hau oinarritzotzat jo daiteke.



- Gertatutakoa era ordenatu batez berreraikitzea, jazo zen bezalaxe.
- Prozesuaren atalak identifikatu.
- Eskura dugun informazio guztia sailkatzea (ondoren aztertuko ditugun oinarritzko elementuak definitu behar dira).



- Ahalik eta erregistro gehiago erabiltzea.
- Informazioa era antolatu eta sistematikoan sailkatu.



- Hutsuneak edota krisi uneak aurkituz dihoaz eta ondorengo galdera hau egiten diozu zure buruari: zergatik aldatu genuen? Honek laguntzen zaitu itaunketak prestatzen, edota azpikontzientziako elementuak azalarazten... Batzutan, “katarsi momentu batean”, horregatik konfidantza sortze prozesu bat beharrezkoa da ere.
- Hemendik aurrera sistematizazioaren zenbait urrats aldi berean eman daitezke (erabilitako irizpidearen arabera da hau).
- Berreraiketa historikoa oinarritzkoa da sistematizazioarentzat.

4.4. Gogoeta sakona: Zergatik gertatu zen gertatutako hura?

Interpretazio kritikoa momentura iritsiak gara. Hemen, esperientziaren prozesua analizatu, laburtu eta kritikoki interpretatzea da helburua, aldi berean aurreko urratsean pilatutako informazio guztiarekin kontrastatuz.



- Gertatutakoaren arrazoiak galdetu behar dugu hemen: zergatik jazo zen honela?
- Elementu ezberdin bakoitza bere kabuz analizatzen da eta gero erlazioak eta sintesiak burutzen dira.
- Zehaztasunak zein orokortasuna aztertzen da, pertsonala zein kolektiboa.



- Faktore giltzarriak ulertzen saiatzen da.
- Esperientziaren barneko logika aurkitzen ahalegiten da.
- Bestelako teoria eta esperientziekin kontrastatzea.



- Gertatutakoaren etapak bilatzen digutu, benetan balioetsua izan zena, eta ez hasierako planteamenduan bilatzen zena (berreskurapen eta berreraikitze logika, eta ez planifikazioaren logika).
- Erakunde instituzionalarekin harremanetan egotea garrantzitsua da.
- Ulerpen teorikoa hobetzen da eta honela, aldeztetik definitua genuena birkontzeptualizatu ahal dezakegu. Momentu honetan interpretazio teorikoarekin elkarriketatu behar dugu (zer esaten diogu guk teoriari eta beronek zer erantzuten digu?).
- “Minik” handiena errua botatzea da, eta honekin batera zigorrak ere daudenean. Askotan, taldetik at dagoen norbaiten eginkizunak laguntzen du zenbait gauza lortzen (zure buruari normalean egiten ez dizkiozun galderak... zure izaera ispilu batean begiratzea bezalakoa da). Azalpenak zein ixiltasunak objetibatu eta azalarazten laguntzen du.

4.5. Helmugak

Aurrean egindako interpretazio horretatik hasita, lortutako ikasketei buruz atera ditugun ondorioak zerrendatu behar ditugu. Esperientzi horretatik ateratako ikasketak, eta planteatu egiten dugu nola konpartitu ahal ditzakegun ezaguera berri horiek bestelako pertsona eta instituzioekin.

a) Ondorioak gorpuztuz:



- Prozesutik eratorritako baieztapen funtsezkoenak dira.
- Baieztapen teoriko zein praktikoak izan daitezke.



- Ikasketa berriei begira hasiera puntu bat suposatzen dute.
- Zalantzak zein galdera berriak izan daitezke ere.

b) Komunikazioko produktuak gorpuztuz:



- Esperientziatik lortu ditugun ezaguera horiek “komunikagarri” bilakatzen jakitea.
- Komunikazio produktuak elaboratzea (hainbat formatotan).



- Ezaguera horiek esperientzian parte hartu duten pertsona guztiei luzatzea.
- Berritasuneko ikutua eman, bide ezberdin eta erakargarriak erabili.



- Momentu honetan zenbait irizpide etiko eta praktikoak kontutan hartu behar dira.
- Erabilgarria eta komunikagarria suerta dadin.
- Pertsona guztien iritzia ez da beti beharrezkoa proposamen bati baliogarrtasuna emateko. Oreak aurkitu eta mantendu beharra dago (zirriborro bat luzatu eta iritziak bota eta jaso...) Hobe da hainbat soluzio ezberdin proposatu, "produktu" ezberdinak, eztabaiden ondorioak kontutan hartzea (agian ez dugu lortuko bigarren produktu ezberdin bat, baina lehenengo hartan sartuko dugu beronek sortutako eztabaida ere).
- Komunikazioaren finkapena helburuak berak egiten du, ondo mugatuta badago, bestela ezin da jakin nori komunikatu. Komunikaziorik interesanteena eztabaida sortu eta mantentzen duena da.

4.6. Ezaguera gorpuztu eta aberasten

Sistematizazioaren helmuga puntua prozesuaren barne logika ulertzera heltzea eta honen inguruko ezaguera baliotsua lortzean datza. Ikasketa hau goi mailako jakintza bilakatu behar da, eta honek lagunduko digu etorkizunean esparru honetan jarduteko. Honengatik, sistematizazio prozesu batetik ateratako ondorioen fokapena ondorengo ekintza edo praktikak burutzerakoan nola hobetzea izan behar da.

Eraberean, “hazi orokorgarriak” suerta litezke eskarmentuak ere ondorioztatu beharko lirateke. Honela, gure esperientziarekin ikasi dugunak antzeko prozesuetarako baliagarria izan liteke, baita politika zehatzak eratzera-koan, edota gure praktiketarik teoria birkontzeptualizatzen laguntzeko. Gutxienez galdera eta kezka berrien era-keta teorikoak azalarazteko balio izan behar du.

Bukatzeko zera aipatu behar dugu; “sistematizaziotxo”-ekin batera, “sistematizazioto”-ak ere badaudela... eta berauen hedapena eta ezberdintasunen arabera ezaguera berri gehiago ala gutxiago sortu eta hedatzeko lagun-duko dutelarik. Edonola, duela gutxi jakin berri dugunez, “sistematizazioen sistematizazioak” ere burutu dira, hau da, esperientzia ezberdinen inguruan egindako sistematizazioak aztertzea, non ardatz edo punturen bat aman-komunean duten. Espeientzia mota asko dagoenez, eta berauek sistematizatzek ekar dezakeen balioa handia denez, proposamen hauek lagunduko dute ekarpen berriak luzatzen gizarte teoriari, oinarri gero eta serioago batetatik.

5. Emaitzak argitara emanez



**Sistematizazioaren
emaitzak aurkezten**

Esperientziak sortutako ezaguerak, baita esperientzia bera ere, hainbat hedabide ezberdinetan aurkeztu daitezke, betiere komunikazio helburuak zein publiko hartzailea kontutan hartuta.

Hona hemen sistematizazioak argitaratzeko proposatu diren zenbait proposamen:

- ◆ Hitzaldiak eta mintegiak.
- ◆ Gaitasun ikastaroak zein lantaldeak.
- ◆ Proiektuei egindako bisitak eta elkartrukeak.
- ◆ Argitalpenak.
- ◆ Sare formalizatu zein informalei bultzakada.
- ◆ Hezkuntza materialak.
- ◆ Filmeak, bideoak eta diapositibak.
- ◆ Liburuxkak.
- ◆ Hormirudiak.
- ◆ Antzerkia.
- ◆ ...

Gehiago sakontzeko

Sistematizazioaren inguruko argitalpen gehienak Latinoamerikan baino ez dira plazaratu, eta normalean hedapen gutxi izan dute Europa mailan. Horregatik, jarraian eskaintzen dugun zerrenda bibliografiko honetako (liburu eta monografiak) titulu guztiak Alboan, Hegoa eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutoko dokumentazio zentruetan dira eskuragarri.

Sistematizazioaren inguruko teoria, fokapen eta metodologiak

- ARDÓN, M.: *Guía metodológica para la sistematización participativa de experiencias en agricultura sostenible*, PASOLAC, San Salvador, 2000.
- AYLLÓN, M.R.: *Una propuesta operativa para sistematizar: aprendiendo desde la práctica*, Asociación Kallpa, Lima, 2002.
- BARNECHEA, M.M., E. GONZÁLEZ eta M.L. MORGAN: *¿Y cómo lo hace? Propuesta de método de sistematización*, Taller Permanente de Sistematización-CEAAL Peru, Lima, 1992.
- BOLÍVAR, L.: *Sistematización de experiencias educativas en derechos humanos. Una Guía para la acción*, Instituto Interamericano de Derechos Humanos, San Jose-Costa Rica.
- EE.AA. *La sistematización en el trabajo de educación popular*, Aportes Aldizkaria, 32 zb, Dimensión Educativa, Bogota, Colombia, 1989.
- EE.AA. *Sistematización de experiencias. Búsquedas recientes*, Aportes Aldizkaria, 44 zb, Dimensión Educativa, Bogota, Colombia, 1996.
- EE.AA. *Sistematización de prácticas en América Latina*, La Piragua Aldizkaria, 16 zb, CEAAL, Mexico, 1999.
- FRANCKE, M. eta M.L. MORGAN: *La Sistematización: Apuesta por la generación de conocimientos a partir de las experiencias de promoción*, Materiales Didácticos 1. zb, Escuela para el Desarrollo, Lima, 1995.
- GAGNETEN, M.M.: *Hacia una metodología de sistematización de la práctica*, Humanitas, Buenos Aires, 1987.
- HERNÁNDEZ, L.: *Procesos de Sistematización, Guía Didáctica*, PAMI, Guatemala, 1998.
- JARA, O.: *Para sistematizar experiencias: una propuesta teórica y práctica*, Centro de Estudios y Publicaciones Alforja, San José de Costa Rica, 1994.
- MEJÍA, J.J.: *Sistematizar nuestras prácticas educativas*, Materiales de Educación Popular Bilduma 10. zb, CINEP, Bogota, 1989.

- MORGAN, M.L (koord.): *Sistematización de experiencias de trabajo en salud*, Curso de Educación a Distancia sobre Salud comunitaria y promoción del desarrollo, bosgarren atala, CELATS, Lima, 1992.
- MUÑOZ, F.: *El bosque o el árbol. Balance sobre sistematización de experiencias de desarrollo*, Escuela para el Desarrollo, Lima, 1998.
- PALMA, D.: *La Sistematización como estrategia de conocimiento en la educación popular. Estado de la cuestión en América Latina*, Papeles del CEAAL Bilduma, 3. zb, CEAAL, Santiago-Chile, 1992.
- RAMOS, R.: *Sistematización y prácticas de promoción. Aproximación teórico-metodológica*, SMAS Asesores, Lima, 1988.
- SANTIBÁÑEZ, E. eta M.E. CARCAMO: *Manual para la sistematización de proyectos educativos de acción social*, CIDE, Santiago-Chile, 1993.
- SELENER, D.: *Manual de Sistematización participativa. Documentando, evaluando y aprendiendo de nuestros proyectos de desarrollo*, Instituto Internacional de Reconstrucción Rural, Quito-Ecuador, 1997.
- TALLER PERMANENTE DE SISTEMATIZACIÓN: *Memoria del I Taller nacional de sistematización*, Taller Permanente de Sistematización-CEAAL, Peru, Lima, 1992.
- TALLER PERMANENTE DE SISTEMATIZACIÓN: *Memoria del Seminario de intercambio y debate sobre sistematización*, Taller Permanente de Sistematización-CEAAL, Peru, Lima, 1992.
- ZÚÑIGA, M.: *Aportes sobre Metodologías Cualitativas para el Proyecto de Sistematización de experiencias significativas de Educación Popular de Adultos en Colombia*, Universidad del Valle, Santiago de Cali, 1995.

Sistematizazioaren inguruko oroitidazkiak eta produktuak

- BERNBAUM, M.: *Entretejiendo lazos de amistad, confianza y compromiso para construir Democracia y Derechos Humanos en el Perú*, IPDEH, Lima, 1999.
- BERNBAUM, M.: *Asumiendo una Educación en Derechos Humanos y en Democracia en la Formación Magisterial en el Perú*, IPDEH, Lima, 2001.
- CARRILLO, P. eta C. ALDAVE: *Mujeres y varones en el gobierno local: enriqueciendo la gestión municipal desde la equidad de género. Sistematización de la experiencia del proyecto "Adopción de Políticas de Género en los Municipios"*, CESIP, Lima, 2002.
- COMUNIDADES ECLESIALES DE BASE DE COLOMBIA: *Hemos vivido y damos testimonio*, Dimensión Educativa, Bogota, 1988.
- EE.AA.: *Expedición Pedagógica Nacional (1. Pensando el viaje; 2. Preparando el equipaje; 3. Huellas y registros)*, Universidad Pedagógica Nacional, Bogota 2001.
- EE.AA.: *Sistematización de cinco experiencias de desarrollo y manejo de recursos naturales en Cajamarca, Perú*, Lantaldearen dokumentua, COSUDE-CONDESAN Kolaborazio Egitaraua, Lima, 1999.

- EQUIPO DE TEOLOGÍA POPULAR DE DIMENSIÓN EDUCATIVA: *Teología a pie, entre sueños y clamores. Sistematización del Proyecto de Teología Popular de Dimensión Educativa*, Dimensión Educativa, Bogota, 1997.
- FONDO PARA LA IGUALDAD DE GÉNERO-ACDI COLOMBIA: *Habitando los espacios. De lo privado a lo público*. Proiektuen 3. Topaketaren Oroitidazkia, ACDI, Bogota 2002.
- FRANCKE, M. y S. MADALENGOITIA: *Se hace camino al andar... Aportes a la construcción de la ciudadanía de las mujeres en salud*, Consorcio Mujer, Lima, 2000
- HERNÁNDEZ, A., D. VARILLAS eta R. VÁSQUEZ: *El club, la parroquia, la oficina. Tres espacios de encuentro entre mujeres*, 8. lan-dokumentua, Escuela para el Desarrollo, Lima, 1993.
- INSTITUTO DE EDUCACIÓN Y SALUD: *¿Podemos hacerlo junt@s? Sistematización de una experiencia con mujeres y varones de grupos juveniles*, IES, Lima, 2003.
- IPEDEH (Peruko Giza Eskubide eta Bakearen inguruko Institutoa): *“La razón de la esperanza”. Líderes sociales promotores de Derechos Humanos y Democracia en el Perú*, IPEDEH, Lima, 2002.
- KEETELS, C.: *Programa de Campesino a Campesino. Sistematización de la experiencia en el departamento de Madriz, Nicaragua*, UNAG, Managua, 2001.
- SOTO, R. eta V. VARAS: *Una mirada en retrospectiva al Plan de Inserción de los Derechos Humanos en los Proyectos de Educación Bilingüe de la Región Autónoma del Atlántico Norte de Nicaragua*, Giza Eskubideen Instituto Interamerikarra, San Jose-Costa Rica, 2002.
- TORRES, A. (et al.): *Organizaciones populares, identidad local y ciudadanía en Bogotá DC* (cuaderno general y cuadernos de caso), Universidad Pedagógica Nacional, Bogota, 2002.
- UNIDAD PEDAGÓGICA DEL IIDH: *Lecciones de una experiencia exitosa: Metodología del Curso Interdisciplinario en Derechos Humanos*, Giza Eskubideen Instituto Interamerikarra, San Jose-Costa Rica 2000.

Argitalpen honekin batera luzatzen den CD rom-ean -gidaliburu honetaz gain- testu osoko artikuluen bilduma bat aurkitu daiteke, ikuspegi teorikoekin zein sistematizazio ezberdinen ondorioekin, baita internet lotura zerrenda bat, non informazio sakonagoa ere eskuragarri duzun.

Hitz gutxitan

Nola laburtu daiteke gidaliburu honen mami oinarrizkoena?

Sistematizazioak gure esperientzietatik gehiago ikasteko balio digute, bai inguruaz zein geuri buruz ere. Metodologi hau erabili dezakegu ez bakarrik giza interbentzioko gure praktikak, baizik eta bestelako erakundeenak ere. Giza transformazioaren esparruan fokapen honek lagundu diezaguke proposamen teorioak burutzerakoan ere... ezaguerak beste erakunde eta pertsoneri luzatu eta berauekin amankomunean ipintzen baditugu.

Nahiz eta liburuxka anitz argitaratu gai honen inguruan, inoiz lortuko dugu perfekzio osoz sistematizatzeko jakin behar den guztia eskuratzea. Zeren eta sistematizazioa **gure praktikarekiko elkarriketa pertsonala baita**, gure identitatearekin, norbere historia eta kontraesanekin. Hori dela eta, proiektua aurrera eramateko nahia eta jarrera baino ez da behar, baita gure praktikek adierazten digutenari arreta ipini. Horretarako ez da gu geu besterik behar, zeren eta, bukatzeko...

sistematizatzen ikasten da sistematizazioa!

Beraz, porrotak edota arrakastak direla eta sistematizazioa merezi duen esperientziarik burutu baduzue...

ekin lanari!

